

**II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****AMURRIOKO UDALA****Arauz kanpo erroldatuta egoteagatik udalaren biztanle erroldan ofizioz baja emango zaiola jakinaraztea interesdunari, helbide ezezaguna baitu (espediente zk.: 16011P-42/2016)**

Administrazio egintza jakinaraztea Félix Ramón Molinero Alonso eta M<sup>a</sup> Soledad J. García García.

Erabaki hau ezin izan zaio jakinarazi interesdunari, ezin jakinik non bizi den. Beraz, Herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkideari buruzko Legearen 59.5 artikuluan ezartzen duena betetzeko (30/1992 Legea, azaroaren 26koa), iragarki hau BOEn argitaratuta —eta aldez aurretik, aukerakoa delarik, ALHAOn eta udalaren iragarki taulan—, alkatetzaren 16/230P zenbakiko ebazpenaren jakinarazpena egiten zaio. Hona hemen, hitzez hitz:

“2016ko abuztuaren 17an, ebazpena eman zen (16/230P Dekretua). Haren edukia, zuri dagokizunez, hau da:

V. O.k, Landaburu kaleko 3 – 7.a ezk. etxebizitzaren errentadunak, 2016ko uztailaren 5ean aurkeztutako idazki baten bidez, udalari jakinarazi dio Félix Ramón Molinero Alonso eta M<sup>a</sup> Soledad J. García García udalaren biztanle erroldan arauz kanpo erroldatuta daudela, ez baitira aipatutako etxebizitzan bizi; hortaz, ez dituzte betetzen Biztanle eta Lurralde Mugen Arautegia- ren 54. eta 68. artikuluan xedatutako baldintzak. Arautegi hori uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onartu eta abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen.

Udaltzainek egindako txostena ikusita, ondorioztatzen da pertsona horiek ez direla etxe horretan bizi.

Bat etorritz Arautegi horren 72. artikuluekin eta Estatistikako Institutu Nazionalaren le- hendakariak eta Eskumenak Autonomia Erkidegoekin eta Toki Erakundeekin koordinatzeko zuzendari nagusiak 2015eko urtarrilaren 30ean elkarrekin eman zuten Ebazpenarekin, zeinaren bidez jarraibide teknikoak ematen baitzaizkie udalei udal erroldaren kudeaketari buruz, eta bat etorritz zehazki arauz kanpoko inskripzioen bajei buruzko idatz zatiarekin eta aplikazio orokor eta bidezkoa dagokion gainerako legediarekin, alkate honek, legez esleituak dituen ahalmenak erabiliz, honako hau xedatzen du:

Lehenengoa. Aurkeztutako eskaera izapidetzeko onartzea, eta ofizioz espedientea irekitzea Amurrioko Udalaren biztanle erroldan baja emateko behean zehazten den pertsonari, arauz kanpo erroldatuta baitago:

IZENA ETA DEITURAK	AGIRIA
Félix Ramón Molinero Alonso	14.684.348-K
María Soledad J. García García	14.879.313-S

Bigarrena. Ebazpen hau eragindakoei jakinaraztea udalerrri honetan izan duten azken helbide ezagunean, hamabost egun igaro baino lehen egoki deritzeten alegazioak eta agiri eta frogagiriak aurkez ditzaten, udalaren biztanle erroldan zuzen inskribatuta daudela egiaztatzeko, edo erroldako egoera erregulariza dezaten, udalari etxe aldaketaren berri emanez edo egungo etxea zein herritan duten adieraziz.

Alkateak agindu eta izenpetzen du, Amurrión, 2016ko abuztuaren 17an. Halabeharrezko idazkari naizen aldetik, fede ematen dut.

Alkatearen eta behin-behineko idazkariaren izenpeak eta errubrikak, biak irakurtezinak.

Jakin dezazun eta dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten dizut.”

Amurrión, 2016ko irailaren 7a

*Alkate lehendakaria*

**JOSUNE IRABIEN MARIGORTA**